


Piercinga edo tatuajea egiteko, baimendutako zentroetara joan, profesional adituak izan ditzatela, higiene eta segurtasun egokia berma dezatela eta arrisku eta zainketen berri eman.



**TATUAJE ETA
PIERCING KONTUETAN,
BEGIRATU OSASUNA!**

TATUAJEA EDO

Nola zaintzen da tatuajea?

- Lehen astean, egunean hiru aldiz garbitu urez, suero fisiologikoz edo xaboi neutroz, belakiz edo eskuoihalez igurtzi gabe.
- Ez kendu sortzen ahal diren zarakarrak.
- Ez bainatu igerilekuetan, ibaietan edo itsasoan tatuajea edo *piercinga* egin eta lehen hamar egunean.
- Egin eta aste baten buruan, eman krema hidratatzailea hilabetez.
- Ez hartu eguzkirik eta UVA izpirik orbaindu bitartean eta, ahal dela, utzi bi hilabete igarotzen.

Gainera, egin baino lehen, kontuan hartu...

- 18 urtez azpikoa bazara, amaren edo aitaren baimena behar duzula.
- Egitea erabakiz gero, baimena sinatu beharko duzula aldez aurretik.
- Tatuajeak iraukorak dira eta kentzeko zailak, ezinezkoa batzuetan.
- Ez hartu alkoholik edo aspirinarik 48 ordu lehenago eta ondoren, gutxienez.

Eskatu informazioa arrisku eta zainketei buruz tatuajea edo *piercinga* egin behar duzun establezimendu baimenduan.



NOLA ETA NON EGIN TATUAJEA EDO PIERCINGa

Zer baldintza bete behar dituzte instalazioek eta ekip amanduek?

Ekainaren 17ko 132/2002 Foru Dekretuan ezarritakoak (96. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2002koa).

Lokalak aparatu esterilizadorea eta ultrasoinuen bidezko garbigailua izan beharko ditu, baita erabili eta botatzeko orratzak eta tresneria, nahiz behar bezala esterilizatuak erabilaldi bakoitzaren ondoren, eta bitxi, zintzilikario eta apaingarri hipoalergiko esterilizatuak ere.

Gainera, larruzala garbitu eta desinfektatu beharko dizute eta botatzeko eskularru kirurgikoak eta arropa argi eta garbia jantzita ariko dira.

Baimendutako zentroetara joan, higiene baldintza egokiak bermatzen dituztenetara. Ikusi betetzen diren edo ez.


Galarazita dago establezimendu ibiltarietan tatuajeak eta piercinga egitea, ez baitituzte higiene baldintza egokiak betetzen.

Noiz ibili behar da dontu handiz?

Hobe duzu osasun etxean galdetzea:

- Hemofilia edo gatzapen arazoak, epilepsia edo konbultsioak, diabetes, larruzaleko gaitzik, hala nola psoriasis edo ekzemak, edo bihotzeko eritasunik ote duzun.
- Alergia gai kimikoei edo metalei.
- Herpes edo onddoak tatuatu edo zulatu beharreko tokian.
- Orbain oso nabarmenatarako joera.
- Infekziorik tatuajea edo *piercinga* egiteko egunean.

Tatuajea edo *piercinga* egin aurretik, ongi pentsatu



TATUAJEAK, PIERCINGa ETA

Zer dira? Zer arrisku dituzte?

- Orratzen bidez pigmentu koloratzaileak larruzalean sartzeari esaten zaio *tatuaje iraunkorra*.
- Eta *piercing*, zintzilikarioak edo apaingarriak jartzeko, gorputza orratzen bidez zulatzeari.

Tatuajeak eta *piercing*ak boladan daude, baina ondorio txarrak izaten ahal dituzte, hala nola:

- Infekzioak: B hepatitis, C hepatitis edo GIB/HIESa.
- Erreakzio alergikoak: erabiltzen diren bitxi edo tintei.
- Konplikazioak: zaurien infekzioa edo orbaintze akatsak.

Higiene eta segurtasun egokia bermatzeko, profesional adituek egin behar dute.

PIERCINGa TA GERO...

Nola zaintzen da piercinga?

- Ondoko egunetan, urez, suero fisiologikoz eta xaboi neutroz garbitu.
- Aurpegiko *piercing*a denean, ez eman makillaje edo kremarik orbaindu bitartean.
- Ahoko *piercing*a denean, ahorako likidoz garbitu jan, edan edo erre ondoren, eta alkoholik ez hartu orbaindu bitartean.

